

getxo Berri

/ Nabarmentzekoak

- > Trócola Circ-ek "R.E.M." lanarekin amets egitea proposatzen digu, mugimenduan dagoen bizitzaren zeharkaldi hunkigarria (3. or.)
- > Victoria Madariagak, José Basterrak, Rafael Villalongak, Maialen Narbonak eta Telmo Fisherrek 2024ko Getxoko Kirolari Onenen saria lortu dute (4. or.)
- > 6 saltoki saritu dituzte "Getxo Hurbil" sarietan (4. or.)



I. Getxo Live Jaialdia. Hilaren 21etik (ostirala) 23ra (igandea), Muxikebarrin, herriko 9 talderen kontzertuak, adin guztientzat. 5€ (abonua 12€).

Abra Saria. Hilak 22 (larunbata), 18:00etatik aurrera, Algortan, 8 bertsolari gaztek jokatu dute txapela. Sarrera doan.

**A-
GENDA**

Algortako Hezetasuna auzoko Arene kaleko parke berria egiteko lanak hasi dira dagoeneko

Algortako Hezetasuna auzoko Arene kalean parke berri bat egiteko lanak aste honetan hasi dira eta bost hilabeteko epea izango dute beharrak amaitzeko. Parke berriak lau gune izango ditu, berezita egongo dira, eta haurrentzako jolasak eta adin guztietarako kirola egiteko elementuak barne hartuko ditu. Aisialdirako gunea da, eta zati handi batean estalita egongo da. "Gure herritarren gozamenerako eta ongizaterako pentsatutako espazio bat da eta auzotarren eskaerei erantzuten die", Amaia Aguirre alkatearen hitzetan.

Udal ekipamendu berriaren aurrekontua miloi bat euro baino zertxobait gehiagokoa da, eta diru-kopuru horren zati bat, 446.000 euro, 2023ko aurrekontu parte-hartzaileen kargura joango da, haurren jolasguneko estalkiaren kostua ordaintzeko. "2023. urteko parte-hartze izaerako aurrekontuetan hartu genuen konpromisoarekin batera, eta hauteskunde-programan nahiz legegintzaldiko planean jaso genuenez, Getxok haurrentzako 45. parkea izango du ekainean. Udalean, auzotar guztientzako azpiegitura moderno eta irisgarrien aldeko apustua egiten jarraitzen dugu", adierazi du Aguirrek.

4 eremu bereziak

Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Janire Ociok azaldu duenez, Arene parke berri honek azalera handia du, 1.370 m², eta "ondo mugatutako lau gune instalatuko ditugu: horietako bi, estaliak, haurrentzat bakarrik izango dira, eta jolasak izango dituzte, hala nola txirristak, zabuak edo igotzeko egiturak; hirugarren batek kirol anitzeko pista bat hartuko du, ate eta saskiekin; eta laugarrenean, kalistenia gune bat eta beste kirol elementu batzuk egongo dira adin guztietarako eta mugikortasun murriztua duten pertsonentzat".

- Parkeko **1. zonan** kirol anitzeko pista bat egongo da, 22x12 metrokoa, saretarekin itxitako atekin, altuera doigarria duten saskiekin, alboetako sarbideak eta beste sarbide inklusibo bat dituen pista batekin eta belar artifizialarekin.
- **2. zonan**, 17x14 metrokoa, haurrentzako jolaserako elementuak jarriko dira estalkipean, 2 eta 6 urte bitartekoentzat. Honako elementu hauek osatuko dute, gutxienez: igotzeko egitura bat, sehaska eserlekua duen kolunpioa, eserleku hirukoitza duen zabua eta oreka, igoera eta txirrista irisgarriko jarduerak egitea bermatzen dituen jolasgunea.
- **3. zonan**, 5 urtetik gorako adingabeentzako eremua, hau ere 17x14 m-koa, eta gutxienez 2 txirrista, igotzeko guneak eta altuera desberdineko pasarelak izango ditu.
- **4. zonan**, 270 m²-ko azalarekin, hainbat elementu jarriko dira mugikortasun urriko pertsonentzat eta kalistenia gune bat izango da, muskulua berotzeko eta indartzeko ariketak egiteko.



HAINBAT DATU

- **Azalera:** 1.370 m²
- **1. Zona:** Kirol anitzeko pista
- **2. Zona:** 2 eta 6 urte arteko umeentzako jolasak
- **3. Zona:** 5 urtetik gorako umeentzako jolasak
- **4. Zona:** mugikortasun urrikoentzako ariketak eta kalistenia gunea
- **Aurrekontua:** 1.002.918 €
- **Lanak egiteko epea:** 5 hilabete





OTSAILAK 13 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Jonas Poher Rasmussenen "Flee" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

OTSAILAK 14 OSTIRALA

Kontularien kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte) ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen topagunea.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Margarethe von Trotteren "El viejo roble" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

Hitzaldia. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Musika Klasikoaren hastapenak IV". Hizlaria: Diego de Amigo (konpositorea, biolinista eta Gasteizko eta Barakaldoko kontserbatorioetako irakaslea). Antolatzailea: All'Antica. www.allantica.org

Hitzaldia. 18:30ean, Villamonteko Kultur Aretuan, "Mendi segurtasuna". Hizlaria: Zigor Egia (EMF Segurtasun Batzordea). Doako sarre-
ra. Etorkizuna Mendi Taldeak antolatuta.

OTSAILAK 15 LARUNBATA

Kontzertua. Neguko bidaia zikloa. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Moonlight shadows (jazz eta soula). Sarrerak agortu dira.

Zirkoa. 20:00etan, Muxikebarrin, "R.E.M." La Trócola Circ-arekin. 12€.

OTSAILAK 16 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Teresa eta galzagorri" (euskaraz). 2,50€.

Haurrentzako ikuskizun musikala. 18:00etan, Muxikebarrin, "Los músicos de Bremen" (gaztelaniaz) Nacho Vilar Produccionesena. 8€.

OTSAILAK 19 ASTEAZKENA

Hitzaldia. 19:00etan, Urgull Zentroan (Algorta), "Los chicos del bosque. Migrantes, integración y ciudadanía". Hizlaria: Juan Luis Ibarra, EAEANko presidente ohi. Antolatzaile: Eurgetxo.

OTSAILAK 20 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Un poquito de aventura y de la buena, por favor" (gaztelaniaz), Cataplinarekin. 3 urtetik aurrera.

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Molly Manning Walkerrren "How to hace sex" (AJB). 16 urtetik aurrera. 3,50€.

Hitzaldia. 19:30ean, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Las pagodas de Pagan" (gaztelaniaz). Hizlaria: Emilio Melón. Antolatzailea: Mugarik-Garapen pertsonal eta komunitarioarako elkarte.

OTSAILAK 21 OSTIRALA

Helduentzako ipuin kontalaria. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Historias de Sanquetepueblos" (gaztelaniaz), Maricuelarekin.

Kontzertua. Getxo Live. 20:00etan, Muxikebarrin: Vittersweet, Txerri Ugerrak eta Skimales. 5€ (abonamendua 12€).

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Fernando Trueba eta Javier Mariscalaren "Dispararon al pianista" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

Liburu-hitzaldia. 19:30ean, Benta gunean (Angel etor. 49) "ETA, yo te absuelvo. El papel clave de la iglesia en el proceso de Burgos" liburuaren egilea den Pedro Ontosoren eskutik (irakaslea, kazetaria eta idazlea).

OTSAILAK 22 LARUNBATA

Kontzertua. Neguko bidaia zikloa. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Alma de México (maritxia). 5€.

Kontzertua. Getxo Live. 20:00etan, Muxikebarrin: Gildas, Mississippi Queen & The Wet Dogs eta Los Brazos. 5€ (abonamendua 12€).

Abra Saria. Algortan, 8 bertsolari gaztek Abrako txapela jokatu dute. 18:00etan, 1. kanporaketa Abian elkartean; 19:30ean, 2. kanporaketa Salsidu tabernan; eta 21:00etan, finala Azebarri txokoa. Sarrera dohainik.

OTSAILAK 23 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Blue Thermal" (gaztelaniaz). 2,50€.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Lucius Dumben berebiziko bidaia" (euskaraz). 2,50€.

Kontzertua. Getxo Live. 18:00etan, Muxikebarrin: Rock & Kids, Germán Jauregi eta Akatz. 5€ (abonamendua 12€).

Romoko Gizarte Zerbitzuen eraberritzeak egungo beharretara egokitzea ahalbideratzen du

Espazioa handitzea eta hobetzea erabiltzaileen beharretara egokitzeko izan da Romoko Gorbea kaleko 10 zenbakian kokatutako Gizarte Zerbitzuen egoitzan egindako erreforma integralaren helburua. Erreformaren emaitza ordezkaririk politikorekin eta komunikabiderekin iragan ostiralean, hilak 7, egindako bisitan aurkeztu zen. "Lana espazio fisikoa handitzea eta egokitzea izan da, espazioak korridore baten bidez lotuz. Birmoldaketaren gakoa izan da herritarren arreta hobetzea eta guztiontzako espazio egokiak eta irisgarriak bermatzea, hauteskunde kanpainan eta Legealdi Planean agertutako konpromisoa betetzeko" nabarmendu zuen bisita egunean Amaia Aguirre alkateak. Iaz egindako obrak lokala



handitzea ekarri du, gune horri atari batek banandutako beste bat erantsi zaiolako, eta barneko korridore baten bidez komunikatu dira biak, arretarako espazioa hobetuta. Guztira 386 metro koadro geratu dira, 17 lanposturekin (Gizarte langileak, koordinatzaile bat, hezitzaileak, psikologo bat...). Lanak bi fase tan egin ziren iaz eta horrela ez zen Zerbitzua eten behar izan. Inbertsioa 776.559 eurokoa izan da.

"Gizarte Zerbitzuak oro har hobetzeko prozesuan murgilduta gaude. Erreforma horrek espazioak eta baliabideak herritarren egungo eskarierara egokitzeko beharri erantzuten dio. Espazioa berriz diseinatu dugu esku hartzeko eredu atseginoak eta abegikorragoak eskaintzeko, konfiantza sortuko dutenak, batez ere familiei eta haurrei laguntzeko", nabarmendu du Carmen Díaz Gizarte Kohesio-ko zinegotziak.

Gaueko harrapariei buruzko tailerra

Bentaren eraikinean, datoren larunbatean, hilak 22, 10:00etatik 14:00etara, Getxoko gaueko harrapariak eta haien egagrofioen analisia ikastaro-tailerra egingo da, Ingurumeneko Udal Unitateak antolatuta. Harrapari horiei eta beren harrapakinei buruzko bi informazio-hitzaldi emango dira, eta, ondoren, egagrofiloak edo ileen eta hezurtxoen bolen berrahortuak aztertze-ko tailer praktikoak egingo da. Ikastaro-tailerrera joateko, aldeztatik izena eman behar da boluenatura@gmail.com helbidean.



Usteldutako zuhaitzia markatu da M. Aguirren

Santa Ana auzoan, Máximo Aguirre kalera hurbiltzen diren pertsonak, kalean bertan dauden zuhaitz bakoitzean zenbaki bat ikusiko dute. Hain zuzen ere, bi onddoren (*Ganoderma adspersum* eta *Irpex laceratus*) eraginez kaltetutako aleen usteltze-portzentaia (%0tik 100era) adierazten duen zenbakia da ikus daitekeena. Onddo horien presentzia ezabatzeko lurzorua tratatu ondoren, zuhaitzen ordez ezki ale berriak jarriko dira, kale horretan Bulebar berde bat sortzeko egiten ari den jarduketaren barruan.



IGS Kastellstraße - J.C. Baroja



Ae Terras Do Ave - Zubileta

Alemaniako eta Portugalgo ikasleek Getxo bisitatu dute hezkuntza trukeetan

Amaia Aguirre alkateak Erasmus+ programaren barruan Getxoko ikastetxeekin hezkuntza trukeak egiten dituzten bi ikasle talde hartu ditu udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Astelehenean, hilak 10, 14 eta 16 urte bitarteko 13 ikasle eta haien bi irakasle bertaratu ziren, Wiesbaden-Heseko (Alemania) IGS Kastellstraße zentrokoak, Julio Caro Baroja institutuko ikaskideekin batera. Aldez aurretik, hilaren 6an, 11 eta 12 urte bitarteko 6 ikasle portugaldarrek hartu zuten parte, hiru irakasleekin batera, eta Zubileta ikastetxe publikoko ikasle eta irakasleekin partekatu zuten proiektua.

STAFF

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Mediapost. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

Trócola Circ-ek “R.E.M.” lanarekin amets egitea proposatzen digu, mugimenduan dagoen bizitzaren zeharkaldi hunkigarria



Abra Saria larunbatean, hilak 22, Algortan

Datorren larunbatean, otsailak 22, Abra Sariaren beste edizio bat izango da Algortan hurrengo zortzi bertsolari gazteen partaidetzarekin: Peio Lago (Getxo), Haira Aizpurua (Sara), Janire Arrizabalaga (Gernika-Lumo), Naia Arrizabalaga (Azkoitia), Sabin Abarrategi (Aramaio), Ekhiñe Zapiain (Bera), Kelmene Abaitua

Berriz) eta Jon Mendiluze (Irura).

ALBEk antolatuta, beste batzuen artean Udalaren laguntzarekin, lehen kanporaketa 18:00etan izango da Abian kultur elkar-tean eta bigarrena 19:30ean Sal-sidu tabernan. Finala 21:00etan hasiko da Azebarri Kultur Elkar-tearen txokoan.

La Trócola Circ zirku konpainiak R.E.M. ikuskizuna ekarriko du Muxikebarrira larunbatean, hilak 15. Proposamen honekin, mugimenduan dagoen bizitza eszenaratzen duen zeharkaldi harrigarri, dibertigarri eta hunkigarri batekin amets egitera gonbidatzen gaituzte. Adin guztietako jendearentzat diseinatua, 20:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 12 eurokoa da.

Lau artista eta lau ohe ametsen material eroale bihurtzen dira, altuera bertikaletan, akrobazian, bankinan eta *porté* akrobatikoetan malabareak eginez. Lau taupada eszenan, publikoaren hasperen bakoitzarekin platean biderkatzen direnak.

Konpainiak azaldu duenez, obra honek objektuen ikerketari eusten dio, baina dramaturgia landu batean murgilduz. *“Lo egiten dugunean, gorputzak gure desioekin, beldurrekin eta itxaropenekin konektatzen gaitu. Amets egiten dugu. R.E.M. ametsen mundurako bidaia bat da, publiko guztientzako zirku klabeko objektuen hausnarketa eta ikerketa lan bat, gure kezkez jositako kontakizun oniriko bat ehuntzea lortzen duena. R.E.M.k autoexijentziaz, mugez eta huts egiteko beldurraz hitz egiten du. Ausardiarako deia da, nahi dugun hori lortzeko edo, gutxienez, saiatzeko deia”*.

La Trócola Circ Alacanteko zirku konpainia bat da, bere ekoizpe-nak objektuen ikerketan oinarritzen dituena. Berrikuntzaren aldeko apustu argi batetik abiatuta, hainbat hizkuntza aztertu eta tau-laratzen ditu.



Bremengo musikariak

Igandean, otsailak 16, *Los músicos de Bremen* (Bremengo musikariak) ikuskizun musikala iritsiko da Muxikebarrira, Nacho Vilar Producciones konpainiarekin. Familia osoari zuzenduta, 18:00etan hasiko da, gaztelaniaz izango da eta sarreraren prezioa 8 eurokoa izango da.

Bremengo musikariak Grimm anaien ipuin bat da. Bertan, asto batek, txakur batek, katu batek eta oilar batek beti bizi izan diren baserrietatik irten behar izaten dute. Ez dute elkar ezagutzen, baina soroe-tan zehar egiten duten ibilbidean topo egiten dute, eta pixkanaka musikari izateko nahiak batzen dituela jakiten dute, eta abesti eta dantza artean Bremenera, hiri musikal nagusira, joatea erabakitzen dute. Laster konturatzen dira eskualdean dabiltzan lapur batzuk ametsak lapurtzen espezializatu direla. Ez dakite gure animalia lagun maitagarriek Bremenera iristea lortuko ote duten, baina gauza bat argi dute: elkarrekin egonda, bidea da garrantzitsuena.



“Mujeres que alzaron la voz”, maitasun eta duintasun mezua

Nadine Aernouts idazle belgikarrak *Mujeres que alzaron la voz. Un mensaje de amor y dignidad* (1200-2013). Beguinei egindako omenaldia da, Europako hainbat hiritan antolatuta bizi ziren eta indarrak elkartzea, heztea eta zain-tzea erabaki zuten emakume independenteen komunitatea, eta 8 mendez iraun zuten. *“Ez zegoen botorik eman beharrik, ezta jabetza pribatua baztertu beharrik ere. Ogia irabazteko lan egiten zuten, bizitza kontenplatiboa gizarte-ekintzarekin konbinatuz. Horietako batzuk bere herriko hizkuntzan idatzi zuten lehenak izan ziren”* azaltzen du. Nadine Aernouts Belgikan jaio zen, eta Euskal Filologia ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean. Poliglota da, *Vulcanius* aldizkariaren zuzendaria eta olerkiak, kontakizunak, ipuinak eta saiakerak idatzi ditu.



Moonlight shadows, jazz eta soula Neguko Bidaia zikloan

Moonlight shadows boskoteak kontzertua eskainiko du hilaren 15ean, larunbata, 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Neguko bidaia kontzertu didaktikoen zikloaren barruan. Sonia Moonek (ahotsa), Richie Salvadorrek (pianoa), Andoni Aizpuruk (saxoa), Jon Ander Amigok (kontrabaxua) eta Ander Hernandezek (bateria) osatzen dute taldea, eta Broadwayko jazz amerikarreko klasikoetatik hasi eta Rythm & Blueseko kantuetara arte joko dute. Errepertorioaren bidez, Jazzaren eta Soulairen kondaira handietako abesti ahaztezinetan barrena bidaiatzera gonbidatuko dute publikoa, hala nola Ella Fitzgerald, Aretha Franklin, Frank Sinatra, Louis Armstrong, Elvis Presley edo Amy Winehouse. Sarrerak agortu dira.



Victoria Madariagak, José Basterrak, Rafael Villalongak, Maialen Narbonak eta Telmo Fisherrek 2024ko Getxoko Kirolari Onenen saria lortu dute

Victoria Madariaga, José *Chefo* Basterra eta Rafael Villalonga hockeyko jokalariek, Maialen Narbona txirrindulariak eta Telmo Fisher errugbiko jokalariek 2024ko Getxoko Kirolari Onenen saria jaso dute. XVIII. *Getxo Sasoi Sasoi*an Galan jaso zuten saria iragan asteartean, hilak 11, Fadurako TikiToki gizarte-eta kirol-Zentro berrian.

Banakako kirolari onenak, senior mailan: Victoria Madariaga, Sanse Complutense klubekoa, Espainiako selekzioarekin lortutako 21 urtez azpiko Europako azpitxapelketagatik. Sari bana José Chefo Basterrari eta Rafael Villalongari, Madrilgo Club de Campoko hockeyko jokalariek, Parisko Joko Olinpikoetan irabazitako diplomarengatik.

Banakako kirolari onenak promesa mailan: Maialen Narbona Punta Galea Tx. E.-ko txirrindularia, pistako zein errepideko probetan lortutako emaitza handiengatik, baita taldekako Espainiako Erlojupeko Txapelketagatik ere. Eta Telmo Fisher Aviron Bayonnais errugbi taldekoa, Espainiako selekzioarekin

18 urtez azpiko Errugbi 7-ko Txapelketan irabazitako zilarrezko dominagatik. **Sari kolektiboak, seniorretan:** Emakumezkoen Getxo Rugby, Ohorezko Mailara igotzeagatik. Eta Getxo Saskibaloitako Taldeko gizonezkoen bigarren taldea, Bigarren Maila Nazionalera igotzeagatik.

Sari kolektiboak, promesatan: Getxo Igeriketa Waterpolo Bolue Elkartearen emakumezkoen taldea, Espainiako Txapelketan lortutako 12 dominogatik. Eta Getxo Rugby-ko 16 urtez azpiko taldea, Euskadiko Txapelketa irabazteagatik.

Sari bereziak: Marka Hautsiz R.C. Jolaseta, Espainiako II. Hockey Plus Txapelketa antolatzeagatik. **Kiroltasuna** Alejandro Marín Dobaran, atletismoari eskainitako dedikazio luzeagatik. **Getxo Zabala** Konektia enpresa, dibertsitate funtzionalarekin lotutako kirol proiektuei ematen dien laguntzagatik. Eta, azkenik, **Aitzindariak**, Francisco Javier Izkoa, Real Zaragoza eta Granada FC bezalako taldeetan egindako futbol ibilbideagatik.



6 saltoki saritu dituzte "Getxo Hurbil" sarietan

Udalak udalerriko 6 establezimendu saritu ditu *Getxo Hurbil* merkataritza-sarien bigarren edizioan. Sari horien helburua dela udalerriko merkataritza jarduerarekin lotutako merkataritza eta zerbitzu establezimenduak aitor-

tzea, sustatzea eta ikusaraztea, eta sektoreko eragileen lana nabarmentzea. Epaimahai kualifikatutak batek enpresa sarituak aukeratu zituen aurkeztutako 70 hautagai-tzen artean.

Muxikebarrin egindako ekitaldi

batean sariak banatu ziren honako kategorian:

- **Tradizioa eta ibilbidea:** Jose Drogeria eta Lurrindegia (Areeta)
- **Komertzio sortu berria-Ekintzailtza:** La Latxa (Algorta)
- **360° iraunkortasuna:** Suan Den-

da (Areeta)

- **Berrikuntza. Negozio ereduaren eraldaketa:** Tejidos Lindau (Algorta).
- **"Ekin merkataritza" saria:** Ciclos Olabarrieta (Romo).
- **"Getxoren arima":** Kala (Algorta)

Getxotarrek bultzatutako hogeit hamar proiektu erakutsiko ditu Getxo Kulturak

Muxikebarri, Romo Kultur Etxea eta Areetako Geltokia plazan Getxo Eszena Irekia deialdian hautatutako hogeit hamar proposamen izango dira 2025 eta 2026an. Askotariko diziplinetako proiektuak dira, getxotarrek sustatu edo egindakoak, eta 120.000 euro erabiliko dira gehienez. Oraingo honetan, deialdia bi modalitateetan antolatu da: lehenengoa proiektu profesionaletarako eta bigarrena lan amateurretarako.

Lehenengo kasuan, hamabi pro-

posamen aukeratu dira, horien artean *Exodus* opera esperimentala, *Putzua begibistan* antzezlan (Utopian-Getxoko Antzerki Eskolaren eskutik), *¡Qué fantástica es la fiesta!* musikala edo *Nancy Grace Roman* bakarrizketa. Beste batzuen artean, *La boda de otros* antzezlan, *Chet Baker* eta *Itsasoa* ikuskizun musikala eta *Igogailua* antzezlan ere aukeratu dira, Getxoko sortzaileak deialdian aukeratua.

Amateur modalitatean, zortzi



proposamen hautatu dira. Bi emanaldi aire zabalean egingo dira, Areetako Geltokia plazan: West Bluegrass Band taldearen kontzertua eta Sensei Music Ensembleren *Peixe* ikuskizuna, biak Getxo Folk jaialdiaren barruan. Romo Kultur Etxean *Alas de hierro* antzezlan egingo da eta, gainerakoak, Muxikebarrin (kontzertuak, umorezko bakarrizketak, komedia musikal bat, kontzertu antzeztu bat eta musika-emanaldi bat).